

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2007-07-27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27-07-2007

Organoa edo Batzordea: Osoko Bilkura.
Bilera-mota: apartekoa.
Eguna: 2007-07-27
Ordua: Hasiera: 12:00 eta bukaera: 12:05
Tokia: Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa.

Bertaratuak:

Sotero Plazaola Odriozola, ANV.
Mikel Alcelay Zulaica, ANV
Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain, ANV
Francisco Javier Iraeta Alvarez, EAJ
Juan Miguel Urrutia Castillon, EAJ
Juan Ramon Larrañaga Mercero, EA
M^a Aranzazu Arizmendi Guereñu, EA
Vicente Garmendia Martinez, EA
Iñaki Sanchez Gastañares, EB-BERDEAK
Ana Isabel Salinero Maestre, EB-BERDEAK
Fernando Arakama Fernandez,
kontuhartzailea.
Jon Mikel Garagarza Roteta, idazkaria.

Bertaratu ez direnak:

Ane Urkiola Alustiza, EAJko zinegotzia

Bertaratu ezina adierazi dutenak:

Oscar J. Luis Murillo Perez, PSE-EEeko
zinegotzia
Jose Morcillo Guerrero, PSE-EEeko
zinegotzia

Aztergaiak:

Bidezkoa bada, udal eraikinak
garbitzeari buruzko administrazio-baldintza
zehatzen eta baldintza teknikoen agiriak
onartzea eta dagokion gastua onartzea.

Esan-eginak eta erabakiak:

**Bidezkoa bada, udal eraikinak garbitzeari
buruzko administrazio-baldintza zehatzen
eta baldintza teknikoen agiriak onartzea
eta dagokion gastua onartzea.**

Organo o Comisión: Pleno.
Tipo de Convocatoria: extraordinaria.
Día: 27-7-2007
Hora: Comienzo: 12:00 y final: 12:05
Lugar: Salón de Plenos del Ayuntamiento
de Legazpi.

Asistentes:

Sotero Plazaola Odriozola, ANV.
Mikel Alcelay Zulaica, ANV
Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain, ANV
Fco. Javier Iraeta Alvarez, PNV
Juan Miguel Urrutia Castillon, PNV
Juan Ramon Larrañaga Mercero, EA
M^a Aranzazu Arizmendi Guereñu, EA
Vicente Garmendia Martinez, EA
Iñaki Sanchez Gastañares, IU-BERDEAK
Ana Isabel Salinero Maestre, IU-BERDEAK
Fernando Arakama Fernández, interventor.
Jon Mikel Garagarza Roteta, secretario.

**Personas que no han acudido a la
reunión:**

Ane Urkiola Alustiza, concejal de PNV

**Personas que han excusado su
asistencia:**

Oscar J. Luis Murillo Perez, concejal de
PSE-EE
Jose Morcillo Guerrero, concejal de PSE-EE

Orden del Día:

Aprobación, si procede, del pliego de
condiciones administrativas particulares y
pliego de condiciones técnicas relativos a la
limpieza de los edificios municipales, así
como la aprobación del gasto
correspondiente.

Temas debatidos y acuerdos adoptados:

**Aprobación, si procede, del pliego de
condiciones administrativas particulares
y pliego de condiciones técnicas
relativos a la limpieza de los edificios
municipales, así como la aprobación del
gasto correspondiente.**

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2007-07-27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27-07-2007

Lehenik eta behin, Korporazioko idazkariak hartu du hitza eta, ezer baino lehen, Osoko Bilkurak goian azaldutako gaia eguneko aztergaietan sartuko den erabaki behar duela adierazi du, izan ere, Batzorde informatiboak ez du gai horren gaineko irizpenik eman. Erabakia hartzeko botoetara jo ondoren, aho batez onartu da gaia eguneko aztergaietan sartzea.

Segidan, Alkate-Lehendakariak hartu du hitza eta korporaziokideei deialdiarekin batera bidali zaizkien baldintza-orrietan bi gauza berri sartu direla zehaztu du: batetik, agiriaren 7.2 puntuan esperientziari buruz jasotakoa ondoren azalduko den moduan agertzea proposatzen da; modu horretan kontratuari izaera publikoagoa eman nahi zaio:

10 punturekin baloratuko da udal eraikinak barrutik garbitzen jasotako esperientzia. Puntu 1 zerbitzua eskainitako urte bakoitzeko. Hilabeteak badira, proportzionalki kalkulatuko da. Hori egiaztatzeko Administrazio kontratugileek luzatutako egiaztagiria aurkeztuko dira. Egiaztagiri horietan kontratuen esleipenen datak ageriko dira eta eskaini den zerbitzuarekin Administrazioa pozik geratu den azalduko da.

Bestetik, 2. eranskinean bi pertsona gehitu dira, sartu gabe geratu zirelako kiroldegira atxikitako pertsonak.

Gaia erabakitzeko botoetara jo ondoren, bertaratutako korporaziokideek aho batez onartu dute; beraz, udal eraikinak garbitzeari buruzko administrazio-baldintza zehatzen eta baldintza teknikoan agiriak eta dagokion gastua onartzea erabaki da.

En primer lugar toma la palabra el Secretario de la Corporación para explicar que el Pleno ha de decidir sobre la inclusión del tema en el orden del día, ya que el mismo no ha sido dictaminado por la Comisión Informativa. Sometida a votación la inclusión del tema en el orden del día, la misma es aprobada por unanimidad de los presentes.

Toma la palabra el Alcalde-Presidente para aclarar que respecto a los pliegos repartidos junto a la convocatoria se han introducido dos novedades: por una parte, el apartado relativo a la experiencia contenido en el punto 7.2 del pliego queda redactado de la siguiente manera para darle un carácter más público al contrato:

Con 10 puntos se valorará la experiencia en limpieza interior de edificios públicos. 1 punto por año de servicio realizado. Si son meses se calculará proporcionalmente. La forma de acreditar este apartado será mediante certificaciones expedidas por las Administraciones contratantes en las que se refleje la fecha de las adjudicaciones de los contratos y si se han cumplido a satisfacción de la Administración.

Por otra parte en el anexo 2 se han añadido dos personas más, ya que no se había metido las personas adscritas al polideportivo

Sometida la cuestión a votación, la misma es aprobada por unanimidad de los presentes, por lo que se acuerda aprobar el pliego de condiciones administrativas particulares y pliego de condiciones técnicas relativos a la limpieza de los edificios municipales, así como la aprobación del gasto correspondiente.

UDAL-KORPORAZIOAREN OSOKO BILKURAREN AKTA 2007-07-27	 LEGAZPIKO UDALA	ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACION MUNICIPAL 27-07-2007
---	---	--

Alkateak, eguerdiko 12:05 direnean, amaitutzat eman du bilkura eta aztertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezzen akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut.

El Alcalde levanta la sesión, siendo las 12 horas y 5 minutos, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta de todo lo cual, yo, el secretario, doy fe.

<p>Akta hau 2007-9-26an egindako bileran onartu zen:</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.</p> <p><input type="checkbox"/> baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak.</p>	<p>Este acta fue aprobada en la sesión del día 26-9-2007</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> en su integridad, sin ninguna objeción.</p> <p><input type="checkbox"/> si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas.</p>
<p>Jon Mikel Garagarza Roteta Idazkaria</p>	<p>Sotero Plazaola Odriozola Alkatea</p>